Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala — Boletín Oficial de Gipuzkoa

2022ko azaroaren 28a, astelehena — 225 — Lunes, a 28 de noviembre de 2022

TOKI ADMINISTRAZIOA — 3 — ADMINISTRACIÓN LOCAL

## TOLOSAKO UDALA

*Iragarkia*

Udalbatzak, bi mila eta hogeita biko urriaren hogeita zazpian, Ohiko Osoko Bilkuran, besteak beste, honako erabaki hau hartu zuen:

*Lehena.* Tolosako HAPOko «11. San Esteban» Hirigintza Esparruko aldaketa puntualari buruzko espedientea hastea.

*Bigarrena.* Aldaketa puntualaren prozesuko herritarrek parte hartzeko programa onartzea.

Programak honako eduki hau izango du:

— Talde eragile bat sortuko da parte hartzeko prozesua diseinatu, koordinatu eta jarraipena egiteko. Bertan honako erakundeetako ordezkariek hartuko dute parte: Tolosako Udalak (Hirigintza, Obrak, Zerbitzuak eta Ingurumena Departamentuko eta Komunitatea eta Gobernantza Departamentuko arduradun tekniko-politikoek) eta Sabai Arkitektoak S.L.P. enpresak.

— Herritarren parte hartzeko bilera irekiak antolatuko dira. Saio hauek hiru fase izango dituzte: lehen fasean, Informazio eta Diagnostiko dokumentua bukatu eta gero eta Aurrerakineko Alternatiba ezberdinak zehaztu eta osatzeko prozesuaren barnean, dagozkion ekarpenak jasoko dira herriko eragile eta herritarrengandik. Bigarren fasean, berriz, Aurrerakineko Aukerak jendaurrean jarri eta iradokizunak jasotzeko epean, deboluzio-tailerra egingo da, proposamen teknikoa aurkezteko. Azkenik, hirugarren fasea, iradokizunen epea amaitu eta hauek kontuan hartuta, HAPOren Aldaketa Puntuala idazteko Irizpide eta Helburuak zehazteko egingo da.

1. Lehen fasea. Hiru saio egitea aurreikusten da.

1go. saioa: Informazio bilera.

Informazio eta Diagnostiko dokumentuaren laburpenak eta Ingurumen-ebaluazio Estrategikoko Hasierako Dokumentuaren ondorio nagusiak (besteak beste, lurzoruaren bokazio-planoa) azalduko dira. Horrez gain, Alternatiba ezberdinetan oinarritzat hartuko diren zehaztapenak erakutsiko dira. Saio honetara, bereziki, bertako bizilagunak gonbidatuko dira.

2gn. saioa: 1go. tailer irekia.

Eremuaren Ipar-ekialdeko zatiaren antolamendua landuko da saio honetan. Zuberoako etxebizitzak eta San Juan kalea 10-12 zenbakiko etxebizitzen artean gelditzen den eremuaren antolamendua bereziki landuko da. San Esteban auzoko etxebizitza gehienak bertan kokatzen dira eta eremuak tratamendu berezia eta zehatza behar duela ikusi da hiri-berroneratzearen ikuspegitik. Besteak beste, zeharkako genero perspektiba txertatuko da.

3gn. saioa: 2gn. tailer irekia.

Eremuaren gainerako zatiaren antolamendua lantzeko saioa izango da. Batez ere jarduera ekonomikoak eta ekipamenduak daude gaur egun gune horretan. Besteak beste, zeharkako genero perspektiba txertatuko da.

Lehen fase honetan jasotakoak txosten batean bilduko dira eta Aurrerakineko Alternatibak osatu eta egokitzeko erabiliko dira.

## AYUNTAMIENTO DE TOLOSA

*Anuncio*

El pleno del Ayuntamiento, en sesión ordinaria celebrada el veintisiete de octubre del dos mil veintidós, entre otros, adoptó el siguiente acuerdo:

*Primero.* Iniciar el expediente de modificación puntual del Ámbito Urbanístico «11. San Esteban» del PGOU.

*Segundo.* Aprobar el programa de participación ciudadana del proceso de la modificación puntual.

El contenido del programa será el siguiente:

— Se creará un grupo motor para el diseño, coordinación y seguimiento del proceso participativo En el mismo participarán representantes del Ayuntamiento de Tolosa (responsables técnico-políticos del Departamento de Urbanismo, Obras, Servicios y Medio Ambiente y del Departamento de Comunidad y Gobernanza) y de la empresa Sabai Arkitektoak S.L.P.

— Se organizarán reuniones abiertas de participación ciudadana. Estas sesiones tendrán tres fases: en una primera fase, una vez finalizado el documento de Información y Diagnóstico y dentro del proceso de definición y confección de las diferentes Alternativas de Avance, se recogerán las aportaciones correspondientes de los agentes y de la ciudadanía local. En la segunda fase, durante el periodo de información pública y recogida de sugerencias, se realizará un taller de devoción para presentar la propuesta técnica. Finalmente, la tercera fase, una vez finalizado el plazo de sugerencias y teniendo en cuenta las mismas, se realizará con el fin de definir los Criterios y Objetivos para la redacción de la Modificación Puntual del PGOU.

1. Fase primera. Se prevé la celebración de tres sesiones.

1.ª sesión: Reunión informativa.

Se expondrán los resúmenes del documento de Información y Diagnóstico y las principales conclusiones del Documento Inicial de Evaluación Ambiental Estratégica (entre otras, el plano vocacional del suelo). Además, se mostrarán las especificaciones que se tomarán como base en las diferentes Alternativas. A este programa se invitará especialmente a sus vecinos.

2.ª sesión: 1.er taller abierto.

En esta sesión se tratará la ordenación del tramo Noreste del ámbito. Se trabajará especialmente la ordenación del área que queda entre las viviendas de Zuberoa y la calle San Juan 10-12. La mayoría de las viviendas del barrio de San Esteban se ubican allí y se ha observado que la zona necesita un tratamiento especial y preciso desde el punto de vista de la regeneración urbana. Entre otras cosas, se incorporará una perspectiva de género transversal.

3.ª sesión: 2.º taller abierto.

Se tratará la ordenación del resto del ámbito. Las actividades económicas y equipamientos se concentran en la actualidad en esta zona. Entre otras cosas, se incorporará una perspectiva de género transversal.

Las recogidas en esta primera fase se recopilarán en un informe que se utilizará para completar y adecuar las Alternativas del Avance.

EK\CV GAO-I-2022-07285

2. Bigarren fasea. Saio bat egitea aurreikusten da.

4gn. saioa: Deboluzio-tailerra.

Aurrerakineko Aukerak jendaurrean jarri eta iradokizunak jasotzeko epean, deboluzio-tailerra egingo da, proposamen teknikoa aurkezteko. Hau da, aurreko bi tailerretako emaitzetan oinarritutako Antolamendu Aukerak azaltzeko izango da tailer hau.

Parte hartzeko bigarren faseko bilera ireki honetan jasotakoak txosten batean bilduko dira.

3. Hirugarren fasea. Saio bat egitea aurreikusten da.

5gn. saioa: Amaierako saioa.

Aurrerakineko Aukerak jendaurrean jarri eta iradokizunak jasotzeko epea amaitu eta gero, Iradokizunak aztertu ondoren, parte hartzeko azken saioa egingo da HAPOren Aldaketa Puntuala idazteko Irizpide eta Helburuak zehazteko. Irizpide eta Helburu horiek ondoren Udalbatzak onartuko ditu.

Parte hartzeko hirugarren faseko bilera ireki honetan jasotakoak txosten batean bilduko dira.

— Landutako materiala eta Hirigintza-agiriak herritarren eskura egongo dira. Batetik, Tolosako Udaleko bulegoetan eta web orrian landutako dokumentu, laburpen eta euskarri guztiak eskuragarri egongo dira. Bestetik, iradokizunetarako «Liburu Zuria» prestatuko da zeina, parte hartzeko tailerrak eta Aurrerakin dokumentua amaitzen direnean, jendaurreko epean, auzoan jarriko den iradokizunak egitea errazteko.

*Hirugarrena.* Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea Tolosako HAPOko «11. San Esteban» Hirigintza Esparruko Aldaketa puntualaren Herritarren Partaidetzarako Programa, eta informazioaren teknologia berrien bidez zabaltzea.

*Laugarrena.* Informazioa eskatzea babes zibilean, ingurumenean, kultura-ondarean eta natura-ingurunean eskumena duten Eusko Jaurlaritzako eta Foru Aldundiko sailei, dauden arriskuei buruz eta udalerriaren antolamenduak errespetatu behar dituen ingurumen-baldintzatzaileei, kultura-ondarearen babesari eta natura-inguruneari buruz.

Tolosa, 2022ko azaroaren 15a.—Olatz Peon Ormazabal, alkatea. (7285)

2. Segunda fase. Se prevé una sesión.

4.ª sesión: Taller de devolución.

Durante el periodo de exposición pública de las Opciones del Avance y recogida de sugerencias, se realizará un taller de devoción para presentar la propuesta técnica. Es decir, este taller servirá para explicar las Opciones de Ordenación basadas en los resultados de los dos talleres anteriores.

Las recogidas en esta reunión abierta de la segunda fase de participación se recopilarán en un informe.

3. Tercera fase. Se prevé una sesión.

5.ª sesión: Sesión final.

Una vez finalizado el periodo de exposición pública de las Opciones del Avance y recepción de sugerencias, una vez analizadas las mismas, se realizará la última sesión de participación para definir los Criterios y Objetivos para la redacción de la Modificación Puntual del PGOU. Dichos Criterios y Objetivos serán aprobados posteriormente por el Pleno.

Las recogidas en esta reunión abierta de la tercera fase de participación se recopilarán en un informe.

— El material elaborado y los documentos urbanísticos estarán a disposición de la ciudadanía. Por un lado, estarán disponibles todos los documentos, resúmenes y soportes elaborados en las oficinas y en la página web del Ayuntamiento de Tolosa. Por otro lado, se elaborará un Libro Blanco de Sugerencias que, una vez finalizados los talleres participativos y el documento de Avance, facilitará, durante el periodo de información pública, la formulación de sugerencias en el barrio.

*Tercero.* Publicar en el Boletín Oficial de Gipuzkoa el Programa de Participación Ciudadana de la Modificación puntual del Ámbito Urbanístico «11. San Esteban» del PGOU, y difundir a través de las nuevas tecnologías de la información.

*Cuarto.* Solicitar información a los departamentos competentes en materia de protección civil, medio ambiente, patrimonio cultural y medio natural del Gobierno Vasco y de la Diputación Foral sobre los riesgos existentes y los condicionantes ambientales que debe respetar la ordenación del municipio, sobre la protección del patrimonio cultural, y sobre el medio natural.

Tolosa, a 15 de noviembre de 2022.—La alcaldesa, Olatz Peon Ormazabal. (7285)

EK\CV GAO-I-2022-07285